BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

2078

EBAZPENA, 2009ko uztailaren 17koa, Ingurumeneko sailburuordearena, luzetara soldatutako altzairuzko hodiak fabrikatzeko jarduerarako ingurumeneko baimen bateratua ematen duena, Legutioko udalerrian (Araba), eta Condesa Fabril, S.A. enpresak sustatua.

AURREKARIAK

2006ko abenduaren 18an, Gustavo Antoñana Arregui jaunak, Condesa Fabril, S.A. enpresaren izenean eta ordezkaritzan, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zion, Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoa betez, Legutioko (Araba) udalerrian elektronikoki soldatutako altzairuzko hodiak, txapak eta zumitzak fabrikatzeko jarduerarako. Eskaerarekin batera, honako agiri tekniko hauek erantsi zituen:

– Oinarrizko proiektua (2006ko abendua).

– Laburpen ez-teknikoa (2006ko abendua).

Halaber, agiri horiekin batera, Condesa Fabril, S.A. enpresak proiektuak Legutioko hirigintza-planarekiko zuen bateragarritasunari buruzko udal-txostenaren eskaera aurkeztu zuen.

Erreferentziako baimena eskatzeko orduan, Condesa Fabril, S.A. enpresak, besteak beste, jarduerarako baimena zuen, 1969ko otsailaren 26koa, altzairuzko hodien konformazio-industria ezartzeko. Halaber, enpresak ibilgura isurtzeko baimena, 1993ko abendukoa, eta Posucristo errekako urak biltzeko baimena, 1975eko ekainaren 16koa, eta ondorengo zabaltze eta berritzeak zituen.

2007ko martxoaren 6an, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran esku-hartzea duten hainbat organori txostenak eskatu zizkion, Ingurumen Organoaren bidez proiektua jendaurrean jartzeko izapidetzea adosteari dagokionez. Zehazki, Legutioko Udalari, Gasteizko Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Ebroko Ur Konfederazioari kontsultatu zien.

2007ko urtarrilaren 23an, martxoaren 6an eta urriaren 1ean, Ingurumen Organoak agiri osagarriak txertatzeko eskatu zion sustatzaileari, eta espedientea 2007ko azaroaren 7an osatu zen.

Ingurumeneko sailburuordearen 2007ko azaroaren 14ko Ebazpenaren bidez, 30 egun balioduneko epean jendaurrean jarri zen Condesa Fabril, S.A. enpresak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian nahiz Arabako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2007ko abenduaren 3an. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko bi egunkaritan argitaratu zen, 2007ko abenduaren 2an, eta proiektuak hartuko duen eremuaren ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidea amaitu ondoren, alegaziorik ez dagoela egiaztatu da.

Bere jarduera kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko araudiak jasotzen duen erregimenaren menpe ez dagoela esanez Condesa Fabril, S.A. enpresak egindako alegazioak

erantzute aldera, 2007ko abenduaren 21ean instalazioa bisitatu ondoren jardueraren titularrak dagokion ingurumeneko baimen bateratua eskuratu behar duela ebatzi duela jakinarazi zion Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak Condesa Fabril, S.A. enpresari.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2008ko irailaren 19an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Legutioko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, espedientean ageri den emaitza jasoz.

Ingurumeneko baimen bateratuaren espedientearen ebazpenerako agiriak osatze aldera, 2008ko urriaren 16an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak berriz ere agiri osagarriak txertatzeko eskatu zuen, eta espedientea 2009ko urtarrilaren 23an osatu zen.

2009ko otsailaren 10ean Ebroko Ur Konfederazioari txostena eskatu zitzaion, Condesa Fabril, S.A. enpresak Legution garatzen duen jardueraren ondorioz sortutako isurketaren inguruan.

2009ko martxoaren 4an, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Condesa Fabril, S.A. enpresaren esku utzi zen, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egindako ebazpen-proposamena gehituz.

2009ko martxoaren 18an sustatzailearen jakinarazpena jaso zen. Jakinarazpen hartan hainbat ohar egiten ziren Ingurumeneko Baimen Bateratuaren Ebazpen-proposamenari lotuta.

Sustatzaileak jendaurreko izapidean egindako hainbat ohar isurketen baldintzei buruzkoak direla kontuan hartuta, 2009ko apirilaren 2an berriz ere txostena eskatu zitzaion Ebroko Ur Konfederazioari.

Ondoren, 2009ko apirilaren 24an, Condesa Fabril, S.A. enpresak adierazi zuen altzairu herdoilgaitzezko hodiak fabrikatzeko jardueraren atala Condesa Inox SL enpresari gehitu zaiola, azken enpresa honek adostutako kapital soziala zabaltzeko testuinguruaren baitan. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratuaren menpe dagoen jarduerari ekarriko dizkion aldaketen inguruko informazio-eskaera gehitzen da, eta baita dagozkion notario-eskriturak ere.

Azkenik, eta besteak beste, jarduerak bereizteak instalazioak sortutako isurketengan eragina duela kontuan hartuta, 2009ko maiatzaren 21ean beste txosten bat eskatu zitzaion Ebroko Ur Konfederazioari.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes maila altua helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta –lerro guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen direnak eta jarduera horrekin zerikusia dutenak.

Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 9. artikuluak ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar dute 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua, berau aplika daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen araudiaren araberako ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. Condesa Fabril, S.A. enpresaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuak sortzeko baimena; ibilgura isurtzeko baimena; eta ingurumen izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak eta lurzoruaren kutsadurari aurrea hartu eta zuzentzeari dagozkionak. Era berean, beste administrazio eta erakunde eskudunek egindako txostenak aurkeztuko dituzte, espedientean parte hartzen dutela agerian utziz.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzko azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuak aurreikusten duen jarduera sailkatuetarako udal-baimenaren prozedura ordezkatzen du; ez du ordezkatzen, ordea, udal agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal-agintarientzat loteslea izango da, baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko bada; baita aipatu arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei buruzko aipamena egiten bada ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak aplikatuz, Condesa Fabril, S.A. enpresari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak; horiez gain, espedientean sartu dira Legutioko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenak.

Instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika onenen erabilera eta apirilaren 30eko 728/1998 Errege Dekretuan eta urtarrilaren 31ko 117/2003 Errege Dekretuan ezarritako neurriak eta baldintzak. Zehazki, Europako Batzordearen 2006ko abuztuko azal-tratamenduen «Reference document on Best Available Techniques for Surface Treatment of Metals & Plastics» izeneko agiriaren edukia. Gainera, araudi sektorialei dagokienez, kasu honetan ontziei eta ontzi-hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legea garatzen eta betetzen duen Araudia onartzen duen apirilaren 30eko 782/1998 Errege Dekretua eta konposatu organiko hegazkorren mugaketari buruzko 117/2003 Errege Dekretua aplika daitezke.

Espedienteko txostenak aztertu ondoren, ebazpen-proposamena sinatu eta Condesa Fabril, S.A. enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da. Zentzu horretan, kontuan hartu behar da organo honi atxikitako zerbitzu teknikoek sustatzaileak izapidetze honetan egindako oharrak aztertu dituztela, eta guztiak kontuan hartu direla Ebazpen hau lantzeko orduan.

Halaber, Condesa Inox, S.A. enpresari altzairu herdoilgaitzak fabrikatzeko jardueraren atala gehitzearen ondorioz sortutako aldaketak kontuan hartu dira, eta bereziki, atmosferara eta uretarako hainbat isurtze-puntu ezabatzean oinarritu dira.

Organo hau da ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako legearen 13. artikuluan eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak 2009ko martxoaren 5ean emandako ebazpen-proposamena; Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea; Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua, maiatzaren 8ko 6/2001 Legeak aldatu zuena; Legea burutzeko araudia onartzen duen irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua; Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretua; Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea, eta aplika daitekeen gainerako araudia, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Legutioko (Araba) udalerriko Urbinatik doan Bergarako errepidearen 14. kilometroan egoitza soziala duen eta IFK: A-01156942 zenbakia duen Condesa Fabril, S.A. enpresari Ingurumeneko Baimen Bateratua ematea, Legutioko udalerrian luzetara soldatutako altzairuzko hodiak fabrikatzeko jarduerarako eta Ebazpen honetako Bigarren atalean zehazten diren baldintzak jarraituz.

Era berean, Ingurumeneko Baimen Bateratu hau eman da, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 19. artikuluaren arabera Arroko Erakundeak landu beharreko txostenaren emaitzei kalterik egin gabe.

Jarduera, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskineko 2.6 kategorian sartuta dago, «Prozedura elektrolitiko edo kimikoaren bidez metal eta plastikozko materialen gainazala tratatzeko instalazioak, tratamendurako erabilitako kubeten edo linea osoen bolumena 30 m^3-tik gorakoa denean» izenekoan.

Condesa Fabril, S.A. enpresaren instalazioak Urbinatik doan Bergarako errepideko 14. kilometroan kokatzen dira, Legutioko (Araba) udalerrian.

Condesa Fabril, S.A. enpresaren jarduera luzetara ebakidura koadro, angeluzuzen edo zirkularrez soldatutako altzairuzko hodiak eta profilak fabrikatzean oinarritzen da. 2005 urtean, urteko produkzioa 2.778.428 kg altzairu-profil, 206.123.720 kg luzetara soldatutako altzairuzko hodi, 5.621.529 kg pintatutako hodi (pinturaz estalitako zumitza) eta 82.248.145 kg desugertutako bobina (txapa hoditeriarentzako bobinetan) izan zen.

Produkzio-prozesua bobinak biltegiratzearekin abiatzen da (bobinen parkean edo hormigoizko bi zuloen barrualdean); ondoren, bobinak hainbat bainuz osatutako desugertze-instalaziora eramaten dira eta bertan, desugertzea, neutralizazioa, garbiketa eta lehorketa gauzatzen dira. Jarraian, bobinak desbiribilkatzen dira, zumitzak ebakitzen eta olioztatzen dira, biribilketa eta ondorengo biltegiratzea erraztu ahal izateko. Luzetarako ebakidura egin ondoren, hurrengo urratsa zumitzaren konformazioa da. Bezeroak hala eskatuz gero, ebakidura– eta zuzengailulerroak erabiltzen dira (esaterako, neurri zehatzak).

Korrosioaren aurkako pintura behar duten hodien kasuan, hasieran egiturazko hodia lehortzen da eta ondoren, gainazala prestatzeko granailatzea gauzatzen da, lehorrean altzairua aplikatuz. Azkenik, pintura antioxidatzailearen bidez akabera gauzatzen da.

Bukaerako produktua produktu bukatuen biltegian gordetzen da eta bidali egiten da.

Energia-hornidura iturri gisa, energia elektrikoa, gas naturala eta gasolioa erabiltzen dira. Energia elektrikoa transformadore elektrikoen, argiztapenaren eta indar elektroeragilearen instalazioen funtzionamendurako erabiltzen da; 2005 urtean 11.494.738 kWh kontsumitu zen. Gas naturala lurruna sortzeko galdaran, desugertze-upeletan beroa sortzeko eta lehorketa, pintaketa eta granailatze labean erregai gisa erabiltzen da; 2005 urteko gas naturalaren kontsumoa 7.344.957 kWh izan zen. Gasolioa instalazioetan erabiltzen da, orga, jasomakina eta hondeatzeko atzera-palentzako erregai gisa; 2005 urtean urteko gasolio kontsumoa 29 m^3 izan zen.

Honekin batera, instalazioan sareko eta Posucristo errekako ura kontsumitzen da. 2005 urtean, sareko uraren urteko kontsumoa 10.037 m^3 ingurukoa izan zen (hainbat prozesutarako erabili zen: hodien fabrikazioa, granailatzea, desugertzea eta fabrikako prozesu orokorra); bilketatik etorritako ura, berriz, 5.431,2 m^3 izan zen. Bereziki, desugertze azidoaren bainuaren ondoren zumitzak urberritzeko erabili zen.

Instalazioan sortutako atmosferarako isurtzeak soldatze, granailatze, egiturazko eta doitasun-hodiaren makinen eta desugertze prozesuei lotutako isurtze-foku desberdinetatik sortu ziren. Halaber, garraiatze eta berriz kargatzeko eragiketetan isurtze barreiatuak sortzen dira.

Isurtze horiek arazteko sistemei dagokienez, soldatzeetatik, soldatze-kabinetatik eta doitasun-hodien makinetatik sortutako isurtzeek (1, 2, 3, 5, 7, 8, 9, 10 eta 11. fokuak) hezean xurgatzeko sistemak dituzte. 12. eta 14. fokuei, hurrenez hurren, lotutako hodien granailatzeak eta pintaketak mahuka-iragazkiak dituzte; desugertzearen xurgapenak (15. fokua) uraren bidezko garbiketa-dorrea eta dorrearen aurreko eta ondorengo bereizleak ditu.

Instalazioetan sortutako efluenteak honako hauek dira: industriako hondakin-urak (desugertzearen ondotik altzairuzko bobinak garbitzeko prozesuan sortutako ur azidoen arazketaren ondorioz sortutakoak), komunetatik eta sukaldetik sortutako ur sanitarioak; euri-urak eta hozte-zirkuituaren purgatzeetatik sortutako urak. Efluente horiek Baguetas ibaiaren eta Posucristo errekaren ibilguetara husten dira sei isurketa-punturen bidez. Araztutako industria-urentzako Baguetas ibaira doan isurketa-puntu bat dute eta ur sanitario eta euri-urentzako, berriz, bost isurketa-puntu.

Industria-urak tratamenduko instalazio batean tratatzen dira eta instalazioak unitate desberdinez (dekantazioa, hauspo-gordailua, lohien lodigarria, neutralizazioa, dekantazioa, harea-iragazkia eta prentsa-iragazkia) osatutako malutapen-dekantazio sistema fisiko-kimikoa du.

14 hobi septikotan tratatu ondoren, ur sanitarioak 5 kolektoreren bidez bideratzen dira. Kolektore bakoitzak olioak eta koipeak bereizteko tresna du akaberako puntutik gertu eta bertatik isurketa-puntuaren bidez husten dira. Kutsadura izan dezaketen euri-urak sare berezi baten bidez husten dira eta sare hori ur sanitarioei dagozkien bost kolektoreekin elkartzen da, olio eta koipeen bereizleetatik pasatu aurretik haiekin bat eginez. Hozte-purgatzeak euri-uren sarearen bidez husten dira.

Instalazioan sortutako hondakin arriskutsu nagusiak desugertzetik (azido klorhidriko agortua), hodiaren fabrikaziotik (taladrina eta lohi oliotsuak), granailatze eta pintaketatik (pinturak) sortutakoak eta zerbitzu orokorren prozesuari lotutakoak (olioak, eta abar) dira. Hondakin ez-arriskutsuen artean, desugertze-opilak, altzairu–, burdin– eta txatarra-hondarrak, txirbila eta enbalajeak aipagarriak dira.

Proiektuan ondoren adierazitako Teknika Onenen Erabilera (TOE) barne hartzen da, «Reference Document on Best Available Techniques for Treatment of Metals and Plastics» erreferentziako dokumentuan adierazitakoaren arabera: erabili aurretik ura egokitzea, uraren erabileraren kontrola, hainbat ur berrerabiltzea (garbiketa-upela helburu duen gasen garbiketa-dorrearen ura), prozesuaren disoluzioaren biskositatearen murrizketa (tenperaturaren kontrola eta eroankortasuna), garbiketa kaskadan (aurregarbiketa, garbiketa hotzean eta garbiketa beroan), prozesu kimikoen kontzentrazioaren kontrola, parametro kritikoen kontrola prozesuen disoluzioan (tenperatura eta kontzentrazioa), hidroxidoen prezipitazioa eta eragile malutatzaileen erabilera (uraren tratamendua), akaberako tratamendua deskargatu aurretik (jalkitzea eta iragazketa), pH-aren kontrol jarraikia (hondakin-urak) eta scrubber-a eta tanten bereizlea duen desugertze-lerro kapsulatua.

Bigarrena.– Condesa Fabril, S.A. enpresak Legutioko udalerrian sustatutako luzetara soldatutako altzairuzko hodiak fabrikatzeko jarduera ustiatzeko ondorengo baldintzak eta eskakizunak ezartzea:

A) Administrazioarekiko harremanez arduratuko den pertsonaren gainean Ingurumen Sailburuordetzari eman dizkion datuetan aldaketarik balego, Condesa Fabril, S.A. enpresak aldaketa horien berri emango du.

B) Neurri babesle eta zuzentzaileak sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusita bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

B.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

B.1.1.– Baldintza orokorrak.

Condesa Fabril, S.A. enpresaren instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurtzeek ez dituzte Ebazpen honetan ezarritako isurtzeko muga-balioak gainditukо.

Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Arau orokor hori bete beharrik ez dute izango gai kutsatzaileak mugarik gabe isuri eta horiek biltzea teknikoki edo ekonomikoki bideragarria ez denean, edota ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen denean.

Neurriak hartuko dira ustekabean gai kutsatzailerik ez botatzeko, eta botatzen direnak giza osasunerako nahiz gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura– eta konposizio-aldakuntzei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

B.1.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Condesa Fabril, S.A. enpresaren instalazioak ondorengo fokuak ditu, atmosfera babestearen arloan indarrean dagoen araudiaren arabera katalogatuta:

Foku zk.	Foku-kodea	Fokuaren izena	Garaiera (m)	Barne-diametroa (m)	Taldea	UTM koodernatuak	
						X	Y
1	1000394-01	SLD-E1 Hodia soldatzea	12	0,48	C	530414,5	4756611
2	1000394-02	SLD-E2 Hodia soldatzea	11,5	0,5	C	530678,2	4756626
3	1000394-03	SLD-E3 Hodia soldatzea	10,5	0,5	C	530620,8	4756614
4	1000394-04	CAB-E1 Ebakidura-soldatze kabinak	12	0,4	C	530437,6	4756639
5	1000394-05	CAB-E2 Ebakidura-soldatze kabinak	11,5	0,4	C	530660,4	4756601
6	1000394-06	VRO-E1 Kearen xurgapena, hodiaren hozketa	12	0,6	C	530435,9	4756638
7	1000394-07	SMT-6 Hodia soldatzea	11,5	0,44	C	530516,6	4756452
8	1000394-08	SMT-7 Hodia soldatzea	11,5	0,44	C	530552,8	4756470
9	1000394-09	SMT-10 Hodia soldatzea	11,2	0,46	C	530494,3	4756399
10	1000394-10	SMT-48 Hodia soldatzea	11,2	0,56	C	530518,5	4756427
11	1000394-11	SMT-59 Hodia soldatzea	10,2	0,48	C	530565,2	4756506
12	1000394-12	GR-GR1 Hodia granailatzea	5	0,53	C	530536,40	475802,5
13	1000394-13	SE-GR1 Hodia lehortzea	4	0,60	C	530520,8	4756781
14	1000394-14	PI-GR1 Hodiaren pintaketa	5	0,495	B	530527,4	4756795
15	1000394-15	TO-DCP Desugertze-dorrea	14	0,7	C	530472,3	4758585
16	1000394-16	CAL-DCP Desugertze-galdara	8,5	0,64	B	530491,7	4756673

B.1.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurtzeek ez dituzte isurtzeko muga-balio hauek gaindituko:

Foku zk.	Foku-kodea	Fokuaren izena	Substantziak	Isurtzeko muga-balioak
1	1000394-01	SLD-E1 Hodia soldatzea	Guztizko partikulak	50 mg/Nm^3
			Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	150 mg C/Nm^3
2	1000394-02	SLD-E2 Hodia soldatzea	Guztizko partikulak	50 mg/Nm^3
			Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	150 mg C/Nm^3
3	1000394-03	SLD-E3 Hodia soldatzea	Guztizko partikulak	50 mg/Nm^3
			Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	150 mg C/Nm^3
4	1000394-04	CAB-E1 Ebakidura-soldatze kabinak	Guztizko partikulak	150 mg/Nm^3
			Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	150 mg C/Nm^3
5	100394-05	CAB-E2 Ebakidura-soldatze kabinak	Guztizko partikulak	50 mg/Nm^3
			Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	150 mg C/Nm^3
6	1000394-06	VRO-E1 Kearen xurgapena, hodiaren hozketa	Guztizko partikulak	150 mg/Nm^3
			Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	150 mg C/Nm^3
7	1000394-07	SMT-6 Hodia soldatzea	Guztizko partikulak	50 mg/Nm^3
			Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	150 mg C/Nm^3
8	1000394-08	SMT-7 Hodia soldatzea	Guztizko partikulak	50 mg/Nm^3
			Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	150 mg C/Nm^3
9	1000394-09	SMT-10 Hodia soldatzea	Guztizko partikulak	50 mg/Nm^3
			Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	150 mg C/Nm^3
10	1000394-10	SMT-48 Hodia soldatzea	Guztizko partikulak	50 mg/Nm^3
			Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	150 mg C/Nm^3
11	1000394-11	SMT-59 Hodia soldatzea	Guztizko partikulak	50 mg/Nm^3
			Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	150 mg C/Nm^3
12	1000394-12	GR-GR1 Hodia granailatzea	Guztizko partikulak	50 mg/Nm^3
13	1000394-13	SE-GR1 Hodia lehortzea	Guztizko partikulak	150 mg/Nm^3
			Konposatu organiko hegazkorrak KOG gisa neurtuta	150 mg C/Nm^3
14	1000394-14	PI-GR1 Hodiaren pintaketa	Guztizko partikulak	50 mg/Nm^3
			Konposatu organiko hegazkorrak KOG gisa neurtuta	100 mg C/Nm^3
15	1000394-15	TO-DCP Desugertze-dorrea	Guztizko partikulak	30 mg/Nm^3
			HCl	30 mg/Nm^3
16	1000394-16	CAL-DCP Desugertze-galdara	CO	500 ppm
			NOx	300 ppm

Condesa Fabril, S.A. enpresak garatutako jarduera zenbait jardueratan disolbatzaile organikoak erabiltzerakoan sortzen diren konposatu organiko hegazkorrak isurtzeari buruzko urtarrilaren 31ko 117/2003 Errege Dekretuan ezarritakoaren menpe geratzea zehazte aldera, Ebazpen honetako C.1 atalean disolbatzaileen kontsumoaren urteko kontrola zehazten da. Aipatu araua aplikatu behar izanez gero, konposatu organiko hegazkorrak isurtzeko muga-baliotzat aipatu Errege Dekretuaren II. eranskinean 8. jarduerarako ezarritako balioa joko da (% 25 edo % 20, disolbatzaileen urteko kontsumoaren arabera).

Era berean, aplikatuz gero, disolbatzaileen kudeaketaren memoria igorri beharko zaio Ingurumen Sailburuordetzari.

Isurtzeko muga-balioak baldintza hauei buruzkoak dira: 273 K-ko tenperatura, 101,3 kPa-ko presioa eta gas lehorra.

Neurtutako parametroek ez dituzte isurtzeko muga-balioak gainditu arauz egingo diren aldizkako ikuskaritzetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez), zortzi ordutan zehar neurtuta. Neurketa-tolerantzia gisa, kasu guztien % 25ean gainditu ahal izango da muga-balioa, % 40a gainditzen ez duen zenbatekoa baldin bada. Tolerantzia hori gainditu gero, neurketa-aldia astebetez luzatuko da, eta aldi honetako tolerantzia global gisa, kasuen % 6an gehienez onar daitezkeen mailak gainditzea onartuko da, % 25a gainditzen ez duen zenbatekoa denean. Tolerantzia horiek izanda ere, gai kutsatzaileak isurtzen dituen fokuaren eraginpeko zonaldean ezin izango dira inoiz higienikoki onar daitezkeen balioak gainditu.

13. eta 14. fokuetan neurtutako KOHei (KOG bezala neurtuta) dagokienez, ez dituzte isurtzeko muga-balioak gainditu arauz egingo diren aldizkako ikuskaritzetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez), baldin eta neurketa guztien batez bestekoak ez baditu gainditzen isurtzeko muga-balioak eta ordubeteko neurketek 1,5 baino faktore handiagoan isurtzeko muga-balioak gainditzen ez badituzte.

B.1.4.– Gasak bildu eta husteko sistemak.

Fokuetako hondakin-gasak kanporatzeko tximiniak ez dira egongo B.1.2 atalean ezarritako goreneko kotatik behera. Tximiniek, industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzeari buruzko Industria Ministerioaren 1976ko urriaren 18ko Aginduan ezarritako baldintzak beteko dituzte; horrela, besteak beste, laginak hartzeko puntura sarbide seguruak eta errazak jarriko dituzte.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusitako zuloen kokapenari eta ezaugarriei dagokienez, gas-fluxuak laginketa-puntutik neurketa-puntura bitartean, bere norabidean zehar nahiz aurkakoan, edozein perturbazio izan dezakeen gunera bitarteko distantziak (L1 eta L2 parametroak) 1976ko urriaren 18ko Aginduaren III. eranskinean xedatutakoa beteko dute. L1 ≥ 8D eta L2 ≥ 2D distantziak betetzen ez diren fokuetarako inoiz ez dira L1 < 2D eta L2 < 0,5D balioak onartuko. Kasu horietan, neurketen txostenean laginketa-planoaren baliotasuna justifikatzea eskatuko da.

Gutxieneko distantzia horiek ere betetzen ez dituzten fokuen kasuan (4. fokua), neurketa-planoak birkokatzeko proposamena egin beharko da.

B.2.– Ibilgura isurtzeko baldintzak.

B.2.1.– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Isurketa sortzen duen jarduera mota nagusia: altzairuzko hodiak fabrikatzea.

Jarduera-taldea: altzairuzko hodiak fabrikatzea.

Mota-taldea-EJSN: 1-2-27.22.

Egungo egoera (B.2.4 atalean deskribatutako Betetzeko Jarduketak gauzatu arte).

Isurketa-puntua	Hondakin-ur mota	Isurketaren jatorria	Ingurune hartzailea	Arro hidrografikoa	Ingurune hartzailearen kategoria	Isurketa-puntuaren UTM koordenatuak
1	Euri-urekin batera, 1, 2 eta 11. hobietatik eratorritako ur sanitarioak	Doitasun-hodiaren gunea	Posucristo erreka	Zadorra ibaia	II	X: 530.800 Y:4.756.547
2	Euri-urekin eta hozte-purgatzeekin batera, 12 eta 13. hobietatik eratorritako ur sanitarioak	Egiturazko hodiaren gunea	Posucristo erreka	Zadorra ibaia	II	X: 530.787 Y: 4.756.556
3	Euri-urekin eta hozte-purgatzeekin batera, 9 eta 14. hobietatik eratorritako ur sanitarioak	Egiturazko hodiaren gunea	Baguetas ibaia	Zadorra ibaia	II	X: 530.330 Y: 4.756.637
4	Industria-urak eta euri-urak (araztegiaren efluentea)	Ebakidura- eta desugertze-lerroen gunea	Baguetas ibaia	Zadorra ibaia	II	X: 530.289 Y: 4.756.560
5	Euri-urekin eta hozte-purgatzeekin batera, 3, 4, 5, 6, 7 eta 8. hobietatik eratorritako ur sanitarioak	Ebakidura- eta desugertze-lerroetako bainuak eta guneen arteko bidea	Baguetas ibaia	Zadorra ibaia	II	X: 530.201 Y: 4.756.244
6	Euri-urekin batera, 10. hobitik eratorritako ur sanitarioak	Doitasun-hodiaren gunea	Baguetas ibaia	Zadorra ibaia	II	X: 530.554 Y: 4.756.208

Etorkizuneko egoera (B.2.4 atalean deskribatutako Betetzeko Jarduketak gauzatu ondoren).

Isurketa-puntua	Hondakin-ur mota	Isurketaren jatorria	Ingurune hartzailea	Arro hidrografikoa	Ingurune hartzailearen kategoria
1 (ur beltzak)	1. araztegitik eratorritako ur sanitarioak	Doitasun-hodiaren gunea, egiturazko hodiaren gunea	Posucristo erreka	Zadorra ibaia	II
1 (euri-urak)	Euri-urak	Doitasun-hodiaren gunea	Posucristo erreka	Zadorra ibaia	II
2 (euri-urak)	Euri-urak eta hozte-purgatzeak	Egiturazko hodiaren gunea	Posucristo erreka	Zadorra ibaia	II
3 (ur beltzak)	3. araztegitik eratorritako ur sanitarioak	Egiturazko hodiaren gunea	Baguetas ibaia	Zadorra ibaia	II
3 (euri-urak)	Euri-urak eta hozte-purgatzeak	Egiturazko hodiaren gunea	Baguetas ibaia	Zadorra ibaia	II
4 (industria-urak)	Industria-urak (araztegiaren efluentea)	Ebakidura- eta desugertze-lerroen gunea	Baguetas ibaia	Zadorra ibaia	II
4 (euri-urak)	Euri-urak	Ebakidura- eta desugertze-lerroen gunea	Baguetas ibaia	Zadorra ibaia	II
5 (ur beltzak)	2. araztegitik eratorritako ur sanitarioak	Ebakidura- eta desugertze-lerroetako bainuak eta guneen arteko bidea	Baguetas ibaia	Zadorra ibaia	II
5 (euri-urak)	Euri-urak eta hozte-purgatzeak	Ebakidura- eta desugertze-lerroetako bainuak eta guneen arteko bidea	Baguetas ibaia	Zadorra ibaia	II
6 (euri-urak)	Euri-urak	Doitasun-hodiaren gunea	Baguetas ibaia	Zadorra ibaia	II

B.2.2.– Gehienez isur daitezkeen emari eta bolumenak.

a) 1. isurketa: euri-urekin batera, 1, 2 eta 11. hobietatik eratorritako ur sanitarioak.

Urteko bolumena	1.418 m^3/urte
Eguneko bolumena	6,7 m^3/egun
	0,0775 l/s

b) 2. isurketa: euri-urekin eta hozte-purgatzeekin batera, 12 eta 13. hobietatik eratorritako ur sanitarioak.

1.– Ur sanitarioak eta euri-urak.

Urteko bolumena	183 m^3/urte
Eguneko bolumena	0,87 m^3/egun
	0,0101 l/s

2.– Hozte-purgatzeak.

Urteko bolumena	260 m^3/urte
Eguneko batez besteko bolumena	1,2 m^3/egun
Eguneko gehienezko bolumena	0,007 m^3/h

c) 3. isurketa: euri-urekin eta hozketa-purgatzeekin batera, 9 eta 14. hobietatik eratorritako ur sanitarioak.

1.– Ur sanitarioak eta euri-urak.

Urteko bolumena	92 m^3/urte
Eguneko bolumena	0,43 m^3/egun
	0,0050 l/s

2.– Hozte-purgatzeak.

Urteko bolumena	42 m^3/urte
Eguneko batez besteko bolumena	0,2 m^3/egun
Eguneko gehienezko bolumena	0,0012 m^3/h

d) 4. isurketa: industria-urak eta euri-urak (araztegiaren efluentea).

Urteko bolumena	24.000 m^3/urte
Eguneko bolumena	168 m^3/egun
	1,9444 l/s

e) 5. isurketa: euri-urekin eta hozketa-purgatzeekin batera, 3, 4, 5, 6, 7 eta 8. hobietatik eratorritako ur sanitarioak.

1.– Ur sanitarioak eta euri-urak.

Urteko bolumena	820 m^3/urte
Eguneko bolumena	3,8 m^3/egun
	0,0440 l/s

2.– Hozte-purgatzeak.

Urteko bolumena	215 m^3/urte
Eguneko batez besteko bolumena	1 m^3/egun
Eguneko gehienezko bolumena	0,0064 m^3/h

f) 6. isurketa: euri-urekin batera, 10. hobitik eratorritako ur sanitarioak.

Urteko bolumena	91 m^3/urte
Eguneko bolumena	0,43 m^3/egun
	0,0050 l/s

B.2.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Ibilgurako isurketen ohiko kutsadura-parametroak ondoren zerrendatutakoak izango dira bakarrik, bakoitzerako zehazten diren gehienezko balioekin:

a) 4. isurketa: industria-urak.

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
Urteko gehienezko bolumena	< 24.000 m^3/urte
Eguneko bolumena	< 242 m^3/egun
pH	5,5-9,5
Solido esekiak	<35 mg/l
OEK	<125 mg/l
Olioak eta koipeak	<10 mg/l
Burdina	<2 mg/l
Kloruroak	<1.200 mg/l

b) Ur sanitarioak edo ur asimilagarriak.

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
Urteko gehienezko bolumena	< 2.604 m^3/urte
Eguneko bolumena	< 12,23 m^3/egun
pH	5,5-9,5
Solido esekiak	<35 mg/l
OEK	<125 mg/l
DBO5	<25 mg/l
Olioak eta koipeak	<10 mg/l

c) Hozte-urak.

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
Urteko gehienezko bolumena	< 517 m^3/urte
Eguneko bolumena	< 2,4 m^3/egun
pH	5,5-9,5
Solido esekiak	<35 mg/l
OEK	<125 mg/l
Kloro-hondar askea	<0,2 mg/l
Guztizko P	<3 mg/l
AOX	<0,15 mg/l
ΔGehienezko T, nahasketa-gunearen barruan	1,5 ºC

Hozte-uretan kontagailuak ezartzearen ondorioz, zehatza izanez gero benetako neurketak eskuratzeko aukera ematen dutenak, puntu honen barne dauden emariak ikuskatu egingo dira.

Hozte-zirkuituak husteko erregulartasunez kontuan hartu eta bermatu behar den protokoloa hauxe da:

1.– Husteko gutxieneko denbora: 72 h.

2.– Hondar-kloro askea erreaktiboak gehituz edo beharrezko denboran pausagune bidez, etab. ezabatzea, eta zuzeneko «in situ» analisi-kontrola, isuri aurretik klororik ez dagoela bermatzeko.

3.– Putzuaren hondoan pilatutako lohiak kendu eta hustea. Lohi horiek ezin dira isuri.

Baimen honek ez du baimentzen baldintza honetan esplizituki adierazitako beste substantzia batzuk isurtzea, bereziki gai arriskutsuak izenekoak badira (Uren abuztuaren 2ko 29/1985 Legearen atariko, I, IV, V, VI eta VIII. tituluak garatzen dituen Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua onartzen duen apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretua aldatzen duen maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak aipatzen ditu gai horiek).

Ibaira egindako isurketaren immisioak Ebroko Plan Hidrologikoan adierazitako kalitatezko helburuak bete beharko ditu, eta horiek eskuratzeko ezingo dira diluzio-teknikak erabili.

Guztiz debekatuta dago bainu azido agortuak isurtzea. Baimendutako kudeatzaile batek erretiratu beharko ditu eta enpresak bainu horiek erretiratu direla egiaztatzen duten agiriak izan beharko ditu.

B.2.4.– Araztu eta husteko instalazioak.

Zerbitzu sanitarioetatik, dutxetatik eta sukaldeetatik eratorritako urak barruko saneamendu sarearen bidez bideratzen dira eta kokapenean banatzen diren 14 hobi septikoetan tratatzen dira. Hobi septikoak eraikitzeko ezaugarriak honako hauek dira: 2, 3, 6, 7, 8, 9, 11, 12, 13 eta 14. hobiak polietilenoz eraikita daude; 1, 4, 5 eta 10. hobiak, berriz, hormigoizkoak dira. Guztiek bi konpartimentu dituzte. Hobi septikoek 5 kolektore orokor dituzte eta horietako bakoitzak olio eta koipeen bereizlea du, 5 isurketa-puntu bereiziren bidez ibilgura isuri aurretik bereizten dituena.

Hasiera batean, instalazioko euri-urak gainerako hondakin-uretatik bereizitako sare baten bidez jasotzen dira. Urak bildu ondoren eta ibilgura hustu aurretik, 5 kolektore nagusietan elkartzen dira eta bertan, hobi septikoetako efluenteekin batzen dira, olio eta koipe bereizleetan sartu aurretik.

Hozte-purgatzeak deskribatutako euri-uren sarearen bidez husten dira.

6 kolektore nagusietako bakoitzaren amaieran hidrokarburoen bereizle bat dago. 6 kolektoreak polietilenoz eraikita daude. Horietako bakoitza bi konpartimentutan banatzen da: bereizle 1 eta dekantagailu 1. Kasu guztietan by-pass kutxeta bat dago, kanpoaldetik 2,40 m × 2,40 m oinarrian eta 2,40 m-ko garaiera dituena, dagokion estalkiarekin eta pertsonak pasatzean erregistroa egiten duena.

1., 5. eta 6. puntuetan dauden hidrokarburoen bereizleen tratamendu-ahalmena 15 litro segundoko da; 2., 3. eta 4. puntuetan dauden bereizleen ahalmena, berriz, 6 litro segundoko da.

Ur azidoen garbiketa-sistemaren hondakin-urek oso pH baxua dute, desugertzean azido klorhidrikoa erabiltzen baita. Halaber, burdina-partikula kontzentrazio handia dute. Ur hauek tratatzeko erabiltzen den arazketa-sistema malutapen-dekantazio sistema fisiko-kimikoa da. Jarraian instalazio hau osatzen duten unitateen hainbat xehetasun adierazten dira:

– Hiru dekantazio-piszina.
– 40 m^3-ko hauspo-gordailua.
– Lohien lodigarria.
– 3,5 m^3-ko neutralizazio-gordailua.
– Harea-iragazkia eta prentsa-iragazkia.

Desugertzearen garbiketa-sistematik sortutako ur azidoak zulo batean biltzen dira. Zulo horretatik andel batera ponpatzen dira, zuzenean edota 40 m^3-ko ahalmena duen larrialdiko gordailu baten bidez. Andelean neutralizazioa gauzatzen da, karea gehituz.

Neutralizatutako urak beste andel batera pasatzen dira eta bertan, partikula meheenen flotazioa gauzatzen da aire-injekzioaren bidez. Jarraian, prozesu honen efluentea andel-dekantagailu batera pasatzen da.

Dekantatutakoa lohien lodigarrira bideratzen da; dekantatutako ura, berriz, kolektore orokorrera isurtzen da.

Lohien lodigarrian efluente likidoa sortzen da. Kalitateak ahalbidetuz gero, kolektorera isurtzen da; hori gertatu ezean, tratamenduaren hasierara itzultzen da. Nolanahi ere, lodigarritik sortutako

lohiak prentsa-iragazkian lehortzen dira. Aurreko kasuan bezala, iragazki horretan efluente likido bat sortzen da berriz ere, eta kalitatearen arabera isuri edo berriz ere tratatzen da.

Hondakin-uren araztegiak eta azido klorhidrikoaren eta ur azidoen andelek betetzen duten gunea irtengune txiki batez inguratuta dago. Gune honetako kanpoko perimetroa inguratuz, euri-urak biltzeko kanalizazioa dago.

Burutzeko dauden jarduketak:

1.– Industriako hondakin-uren tratamendu-sistemak egokitzat jotzen badira ere, euri-urak eta ur sanitarioak bereizi beharko dira. Horretarako, desugertze-gunean, instalaziora sartzeko gunean, instalazioaren erdibideko gunean eta instalazioaren atzealdean sare bereizlea izan beharko da.

2.– Euri-urak eta ur sanitarioak bereizi ondoren, hondakin-ur sanitario eta antzekoentzako arazketa-sistema egokiak izan beharko dira. Beharrezkoa izango da arazketa-sistema kopuru txikiagoan efluenteen kontzentrazioa izatea.

3.– Hozte-zirkuituetatik datozen uren hondar-kloro askearen kontzentrazioa ezabatu edo murrizteko gai izango diren tratamendu-sistemak izan beharko dira, ezarritako muga-balioak betetzea bermatuko dutenak.

Azaldutako jarduketak gauzatu ondoren, honako tratamendu-sistemak izango dira:

– 1. araztegia: Oxipac arazketa-sistema (guztizko oxidazioaren arazketa-estazioa), 100 biztanleri dagokion karga tratatzeko dimentsioak dituena, aldez aurretik sukalde-lerroan koipeen bereizlea ezarrita.

– 2. araztegia: Oxipac arazketa-sistema (guztizko oxidaziorako arazketa-estazioa), 15 biztanleren balioko karga tratatzeko dimentsioak dituena.

– 3. araztegia: Oxipac arazketa-sistema (guztizko oxidaziorako arazketa-estazioa), 100 biztanleren balioko karga tratatzeko dimentsioak dituena.

– Tratamendu-sistema desugertze-lerroan: urak neutralizatzea helburu duen tratamendu fisiko-kimikoa, pH egoki bat lortu arte; hala nola, ioi metaliko moduan dauden metalen edukia guztiz ezabatzea edo balio onargarrietara murriztea.

Instalazioan 10 m^3/h-ko tratamendua aurreikusia dago, 14,6 m^3/h-ko punta duena.

– Hozte-zirkuituetatik datozen uren tratamendua, baimendutako mugak, zehazki hondar-kloro askearena, lortzeko helburuarekin enpresako euri-uren sareen bidez isuri aurretik.

Hala eta guztiz ere, hartutako neurri zuzentzaileak nahikoak ez direla ikusiz gero, Condesa Fabril, S.A. enpresak behar beste aldaketa egingo ditu arazketa-instalazioetan, isurketak baimenean ezarritako baldintzak bete ditzan. Aldaketak Administrazioari jakinaraziko dizkio lehenik, eta behar izanez gero, baimena aldatzeko ere eskatuko du.

Lanak betetzeko epeak.

Aipatu EDAR ezartzeko lanak gehienez bi urtetan gauzatuko dira, Ingurumeneko Baimen Bateratuaren ebazpenaren datatik aurrera kontatzen hasita eta ondorengo lanen betearazpenari dagokionez:

– 3. araztegiaren betearazpena, ur beltzen 3. isurketa-puntuari dagokiona eta 14 eta 9. hobi septikoak batzen dituena.

– 2. araztegiaren betearazpena, ur beltzen 5. isurketa-puntuari dagokiona eta 3, 4, 5, 6, 7 eta 8. hobi septikoak batzen dituena.

Lanen bukaera Ingurumen Sailburuordetzari idatziz jakinarazi beharko zaio.

1. araztegia betearazteari dagokionez, ur beltzen 1. isurketa-puntuari dagokiona eta 1., 2., 10., 11., 12. eta 13. hobi septikoak batzen dituena eta abiadura handiko trenaren lanen betearazpenaren menpe geratzen dena, Condesa Fabril, S.A. enpresak aipatu betearazpenaren bideragarritasuna jakinaraziko dio Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzari. Araztegi berria abian jarri arte, «tratamendu egokirik gabe» koefizientea ezarriko zaio isurketari. Isurketaren koefiziente hori lanen betearazpena aitortzeko akta egin eta sistema arazle berrien funtzionamendua egiaztatu arte mantenduko da.

Jabari Publikoko Urguneen Erregelamenduaren 249.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, baimenak ez du benetako ondorio juridikorik izango Ingurumen Sailburuordetzak horiek aitortzeko akta onartzen ez duen bitartean.

Aitortzeko akta onartuta, kasu bakoitzari dagokion kalitate helburua osotasunean eskatu ahal izango da.

Arazketa osagarria ere eskatzeko aukera izango da, ingurune hartzailean gorabehera negatiboren bat antzemanez gero.

Etorkizunean isurketa hau udal izaera edo izaera publikoa duen saneamenduko sare orokor bati lotzea bideragarria baldin bada, sare horri konektatu beharko zaio.

Arazketa-instalazioetako efluenteen irteera bakoitzean kutxeta bat jarriko da eta bertan egingo da isurketaren laginketa. Horrenbestez, isurketaren laginak hartzeko eta emaria neurtzeko baldintza egokiak beteko ditu kutxetak. Kanpotik sartzeko aukera erraztuko da, jarduera garatzen den instalaziora sartzeko beharrik izan gabe.

Era berean, enpresaren euri-uren sarean barneratu aurretik, hozte-uren irteeretan kontrol-puntuak izango dira.

Kasu horretan, nahitaezkoa izango da prozesuko urak isurketa-emariaren edukiera-sistema bat izatea, balioa eta pilatutakoa berehala jakitea ahalbidetuko duena, efluentea kontrolatu ahal izateko.

Halaber, baimenaren titularrak kolektoreak eta arazketa-instalazioak funtzionamendu egoera egokian mantendu beharko ditu. Horrela, betebehar horietarako pertsona bat izendatu beharko du eta instalazioak zaindu eta funtzionatzeko arau zorrotzak eta beharrezko neurriak eman beharko dizkio.

Baimenaren titularrak arazketa-instalazioen funtzionamendua eta isurketen kalitatea eta kantitatea maiz kontrolatu beharko ditu. Informazio hau Ingurumen Sailburuordetzak eta Ebroko Ur Konfederazioak azter dezaten eskuragarri izan beharko dute eta beharrezko egiaztapen eta analisiak egin ahal izango dituzte.

B.2.5.– Isurien Kontrol-kanona.

Uraren Legearen Testu Bateginaren 113. artikulua eta Jabari Publikoko Urguneen Erregelamenduaren (606/2003 Errege Dekretua) 291. artikulua aplikatuz, honakoa da isurien kontrol-kanona:

(IKK): Isurien Kontrol-kanona = $V \times P_u$.

$P_u = P_b \times Cm$.

$C_m = C_2 \times C_3 \times C_4$.

Honela ulertuta:

V = Isurketa baimenduaren bolumena (m^3/urte).

P_u = Isurketaren kontroleko prezio unitarioa.

P_b = Oinarrizko prezioa m^3-ko isurketaren izaeraren arabera.

C_m = Isurketaren maiorazioko edo minorazioko koefizientea.

C_2 = Isurketaren ezaugarrien araberako koefizientea.

C_3 = Isurketaren kutsadura-mailaren araberako koefizientea.

C_4 = Ingurune hartzailearen ingurumen-kalitatearen araberako koefizientea.

Tratamendu egokia duten industria erabilerako urak (4. kontrol-puntua).

V: Bolumena: P_b: Hondakin-ura: Industriala C_2: 3. mota C_3: Tratamendu egokia C_4: Kategoria-eremua: II	V = 24.000 m^3/ urte P_b = 0,03005 €/m^3 C_2 = 1,18 C_3 = 0,5 C_4 = 1,25

Cm = 1,18 × 0,5 × 1,25 = 0,738.

Isurien kontrol-kanona = 24.000 × 0,03005 × 0,738 = 532,25 euro/ urte.

Tratamendu egokia ez duten industria erabilerako urak (1, 2, 3, 5, 6. kontrol-puntuak eta hozte-urak).

V: Bolumena: P_b: Hondakin-ura: Industriala C_2: 1.999 biztanleren baliokidera arte C_3: Tratamendu egokia C_4: Kategoria-eremua: II	V = 3.121 m^3/ urte P_b = 0,03005 €/m^3 C_2 = 1,18 C_3 = 2,5 C_4 = 1,25

C_m = 1,18 × 2,5 × 1,25 = 3,69.

Isurien Kontrol-kanona = 3.121 × 0,03005 × 3,69 = 346,07 euro/ urte.

Guztizko Isurien Kontrol-kanona = 532,25 euro/urte + 346,07 euro/urte = 878,32 euro/urteko.

Ebroko Ur Konfederazioak isurien kontrol-kanonaren likidazioa egin eta jakinaraziko du dagokion urteko ekitaldia bukatu orduko.

Isurien kontrol-kanonak ez du zerikusirik izango Autonomia Erkidegoek edo Udal korporazioek saneamendu– eta arazketa-lanak (Uren Legearen Testu Bateginaren 113.7 artikulua) finantzatzeko ezar ditzaketen kanon edo tasekin.

B.3.– Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortzen diren hondakin guztiak hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta aplika dakiekeen berariazko gainerako araudian xedatutakoari jarraituz kudeatuko dira; hondakinak karakterizatu egin beharko dira euren izaera zehaztu eta helburu egokiena erabakitzeko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia desberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira eta horiek bildu eta biltegiratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketa saihesteko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro baliotu egin behar da eta horretarako balioztagune baimendu batera eraman behar dira. Hondakinak ezabatu ahal izango dira, baldin eta horiek baliotzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, instalazio horietara bidaliko dira, autosufizientzia eta gertutasun printzipioei jarraituz.

Baimendutako zabortegian ezabatzea aurreikusita dagoen hondakinen karakterizazioa, 2002ko abenduaren 19ko Kontseiluaren 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorriz gauzatuko da. Erabaki horren bidez, hondakinak zabortegian hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dira. Bestela, erabaki hori garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan onartutako jarraibideekin bat etorriz gauzatuko da.

Hondakinak biltzeko eremuek lurzoru estankoa izan beharko dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, ezbeharrez gerta daitezkeen isurketak kanpora irten ez daitezen. Hondakina hautsa bada, euri-urarekin kontakturik izan dezan edo haizeak arrasta dezan saihestuko da; behar izanez gero, estali egingo da.

Hondakinek desagertu, galdu edo ihes egingo balute, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Legutioko Udalean.

B.3.1.– Hondakin arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak honako hauek dira:

● 1. prozesua: «Desugertzea».

○ 1. hondakina: «Azido klorhidriko agortua».

– Identifikazioa: A01156942/100003195/1/1.

– Hondakinaren kodea: Q8//R9//L27//C23//H8//A231(1)//B3137.

– EHZ: 11 01 05.

– Urtean sortutako kantitatea: 3.500 t.

Desugertze-azidoak birjartzerakoan sortzen da; burdina-hondarrekin diluitutako kloruro ferrikoa da.

Zuzenean erabilera-puntutik erretiratzen da eta upel batera eramaten da, baimendutako kudeatzaileari bidaltzeko.

● 2. prozesua: «Hodiak edo profilak fabrikatzea».

○ 1. hondakina: «Taladrina erabilia».

– Identifikazioa: A01156942/100003195/2/1.

– Hondakinaren kodea: Q8//D9//L9//C51//H5//A231(1)/B3124.

– EHZ: 12 01 09.

– Urtean sortutako kantitatea: 160 t.

Konformazio-eragiketetan taladrina erabiltzerakoan hondakin gisa sortzen da; emultsio oliotsua da.

Hondakinarentzat identifikatutako lurrazpiko gordailuetan biltzen da eta erabilera-puntutik zuzenean erretiratzen da baimendutako kudeatzaileari bidaltzeko.

○ 2. hondakina: «Lohi oliotsuak».

– Identifikazioa: A01156942/100003195/2/2.

– Hondakinaren kodea: Q8//D9//P9//C51//H5//A231(1)// B3124.

– EHZ: 13 05 02.

– Urtean sortutako kantitatea: 50 t.

Taladrina eta hodien iragazketa-sistemaren gordailuen hondoak garbitzerakoan sortzen da. Olioak dituen taladrina da.

Hondakinarentzat identifikatutako edukiontzietan biltzen da eta hondakin arriskutsuen biltegira eramaten da.

● 3. prozesua: «Granailatzea eta pintaketa».

○ 1. hondakina: «Disolbatzailerik gabeko pintura lehorrak».

– Identifikazioa: A01156942/100003195/3/1.

– Hondakinaren kodea: Q8//D15//S12//C41//H5//A231(1)//B3141.

– EHZ: 08 01 11.

– Urtean sortutako kantitatea: 5 t.

Disolbatzailerik gabeko hautsezko pinturak erabiltzerakoan hondakin gisa sortzen da; hautsezko pintura lehorra da.

Hondakinarentzat identifikatutako big-bag-ean biltzen da. Behin bete ondoren, hondakin arriskutsuen biltegira eramaten da.

○ 2. hondakina: «Disolbatzailea duten pinturak».

– Identifikazioa: A01156942/100003195/3/2.

– Hondakinaren kodea: Q7//R13//L5/12//C41/43//H3b//A231(1)//B3141.

– EHZ: 08 01 11.

– Urtean sortutako kantitatea: 2 t.

Pintaketa-eragiketetan disolbatzaileak erabiltzerakoan hondakin gisa sortzen da; pintura duten disolbatzaile-hondarrak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian biltzen da; behin bete ondoren, hondakin arriskutsuen biltegira eramaten da.

○ 3. hondakina: «Ur-pinturak».

– Identifikazioa: A01156942/100003195/3/3.

– Hondakinaren kodea: Q8//D13//L12//C41/43//H5//A231(1)//B3141.

– EHZ: 08 01 15.

– Urtean sortutako kantitatea: noizean behin.

Pintaketa-eragiketetan hondakin gisa sortzen da; oinarri urtsua duten pintura-hondarrak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian biltzen da, eta bete ondoren, hondakin arriskutsuen biltegira eramaten da.

● 4. prozesua: «Zerbitzu orokorrak».

○ 1. hondakina: «Olio erabiliak».

– Identifikazioa: A01156942/100003195/4/1.

– Hondakinaren kodea: Q7//R13/9//L8//C51//H5/6//A231(1)/B0019.

– EHZ: 13 02 08.

– Urtean sortutako kantitatea: 7 t.

Prozesuaren zenbait makinatan olio hidraulikoa eta lubrifikatzailea birjartzeko eragiketetan sortzen da; olio mekaniko eta hidrauliko erabiliak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da sortu den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakin arriskutsuen biltegira eramaten da.

○ 2. hondakina: «Berunezko bateriak».

– Identifikazioa: A01156942/100003195/4/2.

– Hondakinaren kodea: Q6//R4//S37//C18/23//H8/14//A231(1)/B0019.

– EHZ: 16 06 01.

– Urtean sortutako kantitatea: noizean behin.

Beruna eta soluzio azidoa duten bateria erabiliak berritzerakoan sortzen da.

Hondakin horrentzat identifikatutako paletean biltzen da, horretarako berariaz jarritako gunean.

○ 3. hondakina: «Botoi-pilak ez direnak».

– Identifikazioa: A01156942/100003195/4/3.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S37//C22//H6/14//A231(1)/B0019.

– EHZ: 20 01 33.

– Urtean sortutako kantitatea: 5 kg.

Pila agortuak aldatzeko eragiketetan sortzen da. Pilak multzoka jasotzen dira, eta litioa, sodioa eta potasioa bezalako metalak dituzte.

Hondakinarentzat identifikatutako edukiontzian biltzen da berariaz adierazitako gunean.

○ 4. hondakina: «Botoi-pilak».

– Identifikazioa: A01156942/100003195/4/4.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S37//C16//H6/14//A231(1)//B0019.

– EHZ: 16 06 03.

– Urtean sortutako kantitatea: 5 kg.

Merkurioa duten pila agortuak biltzeko eragiketetan sortzen da.

Hondakinarentzat identifikatutako edukiontzian gordetzen dira berariaz adierazitako gunean.

○ 5. hondakina: «Hodi fluoreszenteak eta merkurioa duten lanparak».

– Identifikazioa: A01156942/100003195/4/5.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S40//C16//H6//A231(1)//B0019.

– EHZ: 20 01 21.

– Urtean sortutako kantitatea: 10 kg.

Merkurioa duten lanpara erabiliak birjartzeko eragiketetan sortzen dira.

Hondakinarentzat identifikatutako kutxan biltzen da, horretarako berariaz jarritako gunean.

○ 6. hondakina: «Tresna ofimatikoak».

– Identifikazioa: A01156942/100003195/4/6.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S40//C6/11/18//H6/14/5//A231(1)//B0019.

– EHZ: 16 02 13.

– Urtean sortutako kantitatea: noizean behin.

Ekipo elektrikoak eta elektronikoak birjartzeko eragiketetan sortzen da; baztertutako ekipo ofimatikoak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako gunean jasotzen da, hondakin arriskutsuen biltegian.

○ 7. hondakina: «Azido formikoa».

– Identifikazioa: A01156942/100003195/4/7.

– Hondakinaren kodea: Q7//R13//L20//C23//H5/8//A231(1)/B0019.

– EHZ: 11 01 06.

– Urtean sortutako kantitatea: noizean behin.

Instalazioko trukagailuak garbitzerakoan sortzen da; arrastatutako elementu ez-metalikoak dituen substantzia azidoa da.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian biltzen da. Hondakinen biltegian gordetzen da.

○ 8. hondakina: «Disolbatzaile organiko ez-halogenatua».

– Identifikazioa: A01156942/100003195/4/8.

– Hondakinaren kodea: Q7//R13//L5//C41//H3b/5//A231(1)//B0019.

– EHZ: 14 06 03.

– Urtean sortutako kantitatea: 10 t.

Mantentze-lanetan eta piezak eta ekipoak garbitzeko eragiketetan disolbatzaileak erabiltzerakoan hondakin gisa sortzen da; disolbatzaile-hondarrak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian biltzen da eta zuzenean erretiratzen du hornitzaileak berak.

○ 9. hondakina: «II. taldeko hondakin sanitarioak».

– Identifikazioa: A01156942/100003195/4/9.

– Hondakinaren kodea: Q16//D14//S1//C35//H9//A231(1)//B0019.

– EHZ: 18 01 03.

– Urtean sortutako kantitatea: 12 kg.

Zerbitzu Medikuaren azpiprozesuan sortzen da; hondakin ebakitzaile eta zorrotzak dira.

Edukiontzi hermetiko batean gordetzen da, botikinean; edukiontzi horretatik atera eta zuzenean ematen zaio baimendutako kudeatzaileari.

○ 10. hondakina: «Kutsatzailez bustitako trapuak, iragazkiak eta xurgatzaileak».

– Identifikazioa: A01156942/100003195/4/10.

– Hondakinaren kodea: Q5//D15//S40//C41/51//H5//A231(1)//B0019.

– EHZ: 15 02 02.

– Urtean sortutako kantitatea: 30 t.

Xurgatzaileak eta ehunak bildu eta pilatzerakoan sortzen da; disolbatzailez eta pinturaz bustitako trapuak, material xurgatzaileak eta iragazkiak dira.

Hondakin horrentzat identifikatutako big-bag batean jasotzen da, sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 11. hondakina: «Zohikatz kutsatua».

– Identifikazioa: A01156942/100003195/4/11.

– Hondakinaren kodea: Q4//D15//S34/40//C41/51//H14//A231(1)//B0019.

– EHZ: 15 02 02.

– Urtean sortutako kantitatea: 1 t.

Hidrokarburoen galerak biltzerakoan sortzen da; olio edo disolbatzaile hondarrak dituen zohikatza da.

Hondakinarentzat identifikatutako big-bag batean jasotzen da, sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 12. hondakina: «GRG ontziak (gai arriskutsuz kutsatutakoak)».

– Identifikazioa: A01156942/100003195/4/12.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C24/51//H5//A231(1)//B0019.

– EHZ: 15 01 10.

– Urtean sortutako kantitatea: 5 t.

Ontzi hutsak jaso eta pilatzerakoan sortzen da; olioak, taladrina eta produktu higienikoak eduki dituzten metalezko ontziak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako gunean jasotzen da, sortzen den postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 13. hondakina: «Kutsatutako metalezko ontziak».

– Identifikazioa: A01156942/100003195/4/13.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C41/51//H5//A231(1)//B0019.

– EHZ: 15 01 10.

– Urtean sortutako kantitatea: 1 t.

Ontzi hutsak jaso eta pilatzerakoan sortzen da; olioak, taladrina, pinturak, pinturaren gehigarriak eta disolbatzaileak eduki dituzten metalezko ontzi prentsatuak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako big-bag batean jasotzen da, sortzen den postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 14. hondakina: «Plastikozko ontziak (gai arriskutsuz kutsatutakoak)».

– Identifikazioa: A01156942/100003195/4/14.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C41/51//H5//A231(1)//B0019.

– EHZ: 15 01 10.

– Urtean sortutako kantitatea: 1 t.

Mantentze-lanen ondorioz ontzi hutsak bildu eta pilatzerakoan sortzen da; olioak eta disolbatzaileak eduki dituzten aerosolak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da, sortzen den postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 15. hondakina: «Aerosol teknikoak (gai arriskutsuz kutsatutakoak)».

– Identifikazioa: A01156942/100003195/4/15.

– Hondakinaren kodea: Q14//R13//S-G36//C41/51//H3b/5//A231(1)//B0019.

– EHZ: 16 05 04.

– Urtean sortutako kantitatea: 60 kg.

Mantentze-lanen ondorioz sortutako ontzi hutsak bildu eta pilatzerakoan sortzen da; olioak eta disolbatzaileak eduki dituzten aerosolak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da, sortzen den postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

a) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistema bereiziak erabiliko dira, duten tipologia dela-eta, isuriren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu zezaketen kasuetan.

b) Hondakin arriskutsuak jasotzen dituzten ontziek uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak (hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko oinarrizko araudia onartzen du Dekretu horrek) 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dituzte; itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezen.

c) Aurreko paragrafoan aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du; etiketa 1988ko uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen araberakoa ere izango da.

d) Berariazko hondakin sanitarioak (II. taldea) manipulatu, ontziratu, etiketatu eta gordetzeko baldintzak Euskal Autonomia Erkidegoan hondakin sanitarioak kudeatzeko baldintzak arautzen dituen martxoaren 26ko 76/2002 Dekretuan eta hori garatzeko araudietan ezarritakoak izango dira.

e) Gainerako hondakin arriskutsuak ezin izango dira 6 hilabete baino gehiago gorde.

f) Hondakinak baimendutako kudeatzailearen instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea baimendutako kudeatzaile horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik eta, behar izanez gero, hondakin-kudeatzaile berri batengana eraman aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua Ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

g) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, araudian ezarritako aurretiazko jakinarazpena egin ondoren, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren ale bat garraiolariari emango zaio, eta zamarekin batera eraman beharko da jatorritik helmugaraino. Condesa Fabril, S.A. enpresak artxibategian erregistratu eta gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

h) Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak baimendutako kudeatzailearen instalazioetara eramateko erabiliko den garraiobideak, horrelako gaiak garraiatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

i) Condesa Fabril, S.A. enpresak industriako olio erabilien kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoan olio erabiliaren kudeaketa arautzen duen irailaren 29ko 259/1998 Dekretuaren arabera kudeatu beharko du sortutako olio erabilia.

j) Aipatutako irailaren 29ko 259/1998 Dekretuaren arabera, Condesa Fabril, S.A. enpresak euren ezaugarriak direla-eta olioaren (aipatutako Dekretuak arautzen du haren kudeaketa) ezaugarri fisiko-kimikoak tratatzea dagokien olio-hondakinak egiaztatu beharko ditu, tratatu daitezen baimendutako akaberako kudeatzaileari bidali aurretik. Aipatutako Dekretuak bere 20. artikuluan xedatutakoaren arabera, egiaztapen hori ez da beharrezkoa izango, baldin eta Condesa Fabril, S.A. enpresak olio-hondakin horiek Euskal Autonomia Erkidegoan baimendutako transferentzia-estazio batera eramaten baditu; kasu horretan, transferentzia-estazio horretako titularrak hartuko du bere gain betebehar hori, erabilitako olioa amaierako kudeatzaileari bidali baino lehen.

k) Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak, horien artean hodi fluoreszenteak, tresna elektriko zein elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzko 2005eko otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

l) Condesa Fabril, S.A. enpresak PKB eduki dezaketen gailuak dituenez, nahitaez bete behar ditu poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuaren baldintzak, eta errege dekretu hori aldatzen duen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua.

m) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2037/2000 EE Arautegian ozono-geruza agortzen duten substantzia batzuk zehazten eta arautzen dira. Condesa Fabril, S.A. enpresak era horretako substantziarik badu, substantzia horiek bildu eta suntsitu egingo dira aldeek erabakitako bide teknikoak erabiliz edota ingurumen ikuspuntutik onar daitekeen suntsiketarako beste edozein bide erabiliz; hondakin horiek birziklatu edo birsortu egingo dira bestela, aparailuak aztertu eta mantentzeko lanen aurretik nahiz desmuntatu eta suntsitu baino lehen.

n) Condesa Fabril, S.A. enpresak urtero adierazi beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari ekitaldi bakoitzean sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria, kopurua, helburua eta aldi baterako biltegiratuta dauden hondakinen zerrenda.

o) Erregistro bat edukiko du, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera eta lagapen datak, jasotzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua, 1988ko uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoa betez, eta 1997ko uztailaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren bidezko aldaketan ezarritakoa betez. Sei hilean behin, Ingurumen Sailburuordetzari kontrolerako erregistro horren kopia bidaliko dio.

p) Hondakin arriskutsuen kudeaketako funtsezko oinarriak bete daitezen, hau da, hondakin horiek ahal den gutxiena sortzea, Condesa Fabril, S.A. enpresak neurri zuzentzaileak erabiliz hondakin arriskutsuen sorrera gutxitzeko plana landu eta aurkeztu beharko du Ingurumen Sailburuordetzan, gutxienez lau urtean behin.

q) Aurreko f) eta g) (kudeatzaileak EAEn daudenean), n) eta o) idatzi-zatietan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-eeM Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

r) Amiantoa duten hondakinak antzemanez gero, Condesa Fabril, S.A. enpresak amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzeari buruzko 108/1991 Errege Dekretuan (3. artikulua) ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Era berean, amiantoa duten hondakinak

kudeatzeko egingo diren manipulazioak 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun eta osasun arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

B.3.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin ez-arriskutsuak hauek dira:

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Zein prozesuri lotuta	Zenbatetsitako ekoizpena (kg)
Paper eta kartoi-ontziak	15 01 01	Enbalajeak	20.680
Zurezko ontziak	15 01 03	Enbalajeak	43.140
Desugertze-opila	19 08 14	Industriako hondakin-uren eta ur azido agortuen tratamendua	28.400
Txatarra eta txirbila	12 01 01	Hodia fabrikatzea	1.330.785
Hobi septikoen lohiak	20 03 04	Zerbitzu Orokorrak	90.000
Hiriko hondakinekin bateratu daitezkeen hondakinak	20 03 01	Fabrikaren zerbitzu orokorrak	55.000
Plastikozko ontziak	15 01 02	Enbalajeak	2.830

a) «Desugertze-opila» hondakinaren kasuan, hondakin horrek ispilu-sarrera du gaur egun indarrean dagoen Europako Hondakin Zerrendan. Beraz, hondakin hori hondakin ez-arriskutsutzat hartuko da, baldin eta hondakin hori aldez aurretik karakterizatzen bada; karakterizazio horren emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidali beharko dira, proposatutako kudeaketa egokia ote den egiaztatzeko. Hondakina arriskutsua dela ezartzen bada, Ebazpen honetako B.3.1 idatzizatian jasotako xedapenak aplikatuko dira.

b) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio (hornitzaileari), erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzihondakinak, berriz, baimendutako berreskuratzaile, birziklatzaile edo balioztagune bati.

c) Hondakin horiek ezin dira 2 urtez baino gehiago biltegiratuta eduki.

d) Oro har, hondakinak hustu aurretik, baimendutako kudeatzaile batek onartzen dituelako agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Agiri horren kopia bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, proposatutako kudeaketa egokia dela eta ebazpen honetan ezarritako oinarrizko printzipioak betetzen direla egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua Ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Condesa Fabril, S.A. enpresak artxibategian erregistratu eta gorde beharko ditu onarpen-agiriak edo horien agiri ofizial baliokideak, horiek aginduzkoak direnean, bost urtean gutxienez.

e) Halaber, hondakinak zabortegian biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuarekin bat etorriz, hondakin ez-arriskutsuak baimendutako zabortegi batera eraman aurretik, jarraipenerako eta kontrolerako dagokion agiria bete beharko da. Agiri horiek bost urtez gorde beharko dira.

f) Erregistro bat egingo da, datu hauekin: hondakin guztien kantitatea, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak (tratatu daitezen araztegira bideratutako bainu agortuak

barne), hondakin guztien sorrera eta lagapen datak, jasotzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua. Urtero, Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaio kontrolerako erregistro horren kopia.

g) Aurreko d) eta e) (kudeatzaileak EAEn daudenean), eta f) idatzi-zatietan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-eeM Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

B.4.– Lurzorua babesteko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritako agindua betez lurzoruaren egoerari buruz aurkeztu duten aurretiazko txostenean jasota dauden gomendioen arabera, Condesa Fabril, S.A. enpresak honako zereginak izango ditu:

– Hondakin-urak arazteko gunearen eta azido klorhidrikoa eta ur azidoak biltegiratzeko gunearen barruan dabiltzan euri-uren hodiak zigilatzea edo ezabatzea. Gainera, larrialdi egoeretarako kutxetak eskuz isolatzeko sistemaren bat izan beharko du, saneamendu sarera irits daitekeen isuriren bat gertatuz gero. Manipulazioaren, erabileraren edo biltegiratzearen ondorioz arrisku-guneetako batean kutxeta edo hustubideren bat detektatuko balitz, teknikoki posible izanez gero, modu iraunkorrean zigilatzea gomendatzen da.

– Olioa eta taladrinak erabiltzen diren instalazioaren gune guztiak aldizka garbitzea, olioa hormigoian sartu (material porotsua) eta lurzorura eta lurrazpiko uretara iristea saihesteko. Gainera, hormigoizko edo epoxi-pinturaz estalitako gune kaltetuak konpon daitezen saiatu beharko da.

– Orgak betetzerakoan hornigailuaren gunean sortzen diren gasolioaren tanta-jarioak biltzeko sistema bat ezartzea.

– Atxikipen-erretiluak ezartzea biltegiratutako produktu kimiko guztietan.

– Lurrazpiko hobien eta gordailuen egoera aldizka zaintzea.

B.5.– Zaratari buruzko baldintzak.

Jarraian adierazitako zarata-mailak ez gainditzeko neurriak hartu eta instalatuko dira:

a) Jarduera honako hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 40 dB(A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 08:00ak eta 22:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 45 dB(A) ere gehienezko baliorik altuenetan.

b) Jarduera honako hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 30 dB(A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 22:00ak eta 08:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 35 dB(A) ere gehienezko baliorik altuenetan.

c) Era berean, zarata ezin da 60 dB(A) baino handiagoa izan, Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, industria-eremuaren kanpoko itxituran.

d) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzerakoan egiten den zaratak ez du handituko akustikoki oso sentikorrak diren aldeetako zarata-maila.

C) Ingurumena Zaintzeko Programa.

Ingurumena Zaintzeko Programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta ondoko atal hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

C.1.– Atmosferara egindako isurtzeen kontrola.

a) Condesa Fabril, S.A. enpresak botatzen dituen poluitzaileak kontrolatu beharko ditu, ondorengoaren arabera:

Fokua	Foku-kodea	Fokuaren izena	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna
1	1000394-01	SLD-E1 Hodia soldatzea	Guztizko partikulak	5 urtero BKE batek
			KOG	
2	1000394-02	SLD-E2 Hodia soldatzea	Guztizko partikulak	
			KOG	
3	1000394-03	SLD-E3 Hodia soldatzea	Guztizko partikulak	
			KOG	
4	1000394-04	CAB-E1 Ebakidura-soldatze kabinak	KOG	
			Guztizko partikulak	
5	1000394-05	CAB-E2 Ebakidura-soldatze kabinak	KOG	
			Guztizko partikulak	
6	1000394-06	VRO-E1 Kearen xurgapena, hodiaren hozketa	Guztizko partikulak	
			KOG	
7	1000394-07	SMT-6 Hodia soldatzea	Guztizko partikulak	
			KOG	
8	1000394-08	SMT-7 Hodia soldatzea	Guztizko partikulak	
			KOG	
9	1000394-09	SMT-10 Hodia soldatzea	Guztizko partikulak	
			KOG	
10	1000394-10	SMT-48 Hodia soldatzea	Guztizko partikulak	
			KOG	
11	1000394-11	SMT-59 Hodia soldatzea	Guztizko partikulak	
			KOG	
12	1000394-12	GR-GR1 Hodia granailatzea	Guztizko partikulak	
13	1000394-13	SE-GR1 Hodia lehortzea	Guztizko partikulak	
			KOHak, KOG gisa neurtuak	
14	1000394-14	PI-GR1 Hodiaren pintaketa	Guztizko partikulak	3 urtero BKE batek
			KOHak, KOG gisa neurtuak	
15	1000394-15	TO-DCP Desugertze-dorrea	HCl	5 urtero BKE batek
			Guztizko partikulak	
16	1000394-16	CAL-DCP Desugertze-galdara	CO	3 urtero BKE batek
			NOx	

Aurreko atalean aipatutako neurketa guztiak baimendutako kontrol erakunde (BKE) batek egin beharko ditu (zortzi ordutan hartutako hiru neurketa, gutxienez ordubetekoa bakoitza), eta aldizkako neurketa horiei buruzko txostenak Ingurumen Sailburuordetza honek prestatutako «BKEen gutxieneko txostenean» ezarritakora egokitu beharko du. Nolanahi ere, isurtzeen kontrolek eta neurketa-baldintzek Ingurumen Sailburuordetzaren jarraibide teknikoetan eskatutako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

Arestian eskatutako parametro guztien neurketen BKE txostenak bidaliko dira. Parametroen neurketak ez izatekotan edo parametro horiek ebazpen honetan neurketak egiteko ezarritako maiztasuna baina zaharragoak badira, neurketak berriz egin beharko dira. Atmosferara egiten diren isurtzeen ondorengo kontrolak, egindako azken neurketan adierazitako maiztasunarekin egingo dira.

2007 urtean metalak estaltzeko jardueran disolbatzaileen kontsumoa zenbait jardueratan disolbatzaile organikoak erabiltzerakoan sortzen diren konposatu organiko hegazkorrak isurtzeari buruzko urtarrilaren 31ko 117/2003 Errege Dekretuak jarduera horretarako ezartzen duen kontsumo-mugatik oso hurbil egon zela kontuan hartuz, urtero jarduera horretan kontsumitutako disolbatzaileen berri eman beharko da. Disolbatzaileen edukiari dagokion kontsumoa xehatu eta batu egin beharko da ondorengo ataletan: pintura eta bernizen disolbatzaileak, diluzioaren disolbatzailea eta jarduera horretarako erabilitako garbiketa-ekipoetan erabilitako disolbatzailea. Araudi hori aplikatu behar izanez gero, horrekin batera, horren inguruan Ingurumen Sailburuordetzak eskatutako informazioa gehitu beharko da.

Erregistro bat egin beharko da euskarri informatikoan edo, horrelakorik ezean, paperean. Dokumentazio gaurkotua erabilita gauzatuko da erregistroa, eta industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzeari buruzko 1976ko urriaren 18ko Aginduak 33. artikuluan ezarritako edukia jaso beharko du. Erregistro horretan adieraziko dira egindako neurketen emaitzak, mantentze-lanak, garbiketa, aldizkako ikuskatzeak, matxuraren ondorioz gertatutako etenaldiak, egiaztapenak, edozein motako gorabeherak, eta abar. Dokumentazio horrek eguneratuta egon beharko du, eta ingurumen-ikuskatzaileek eskatuko balute, eskuragarri izango dute.

C.2.– Isuritako uraren kalitatearen kontrola.

a) Sustatzaileak aurkeztu dituen agirien arabera, ondorengo analisiak egingo dira:

Isurketa-puntua	Kontrolatu beharreko fluxua	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol mota
1, 2, 3, 5 eta 6	Ur sanitarioak edo ur asimilagarriak	Emaria, pH, SS, OEK, DBO5, olioak eta koipeak	Hiru hilero	Kanpokoa
4	Industria-urak	Emaria, pH	Etengabea	Autokontrola
		pH, solido esekiak, OEK, olioak eta koipeak, burdina, kloruroak eta emaria	Hiru hilero	Kanpokoa
2, 3 eta 5	Hozte-purgatzeak	Emaria, pH, SS, OEK, guztizko P, hondar-kloro askea, AOX eta ΔTmax, nahasketa-gunearen barruan	Hiru hilero	Kanpokoa

b) Kanpoan egiten den kontrol bakoitza, laginak hartzea nola ondorengo analisia, «Erakunde Laguntzaile» batek egin eta egiaztatuko du (Jabari Publiko Hidraulikoaren 255. artikulua) eta goian aipatutako parametroak hartuko dira kontuan. Sustatzaileak isurketa-puntu bakoitzeko lagin hartu berri baten analisia aurkeztu beharko du gutxienez; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izango da, edo bestela, lagin puntual esanguratsua.

Titularrak Ingurumen Sailburuordetzari eta Ebroko Ur Konfederazioari aldizkako txostena igorri beharko die eta bertan honako datuak azaldu beharko dira:

– Hiru hilero: isurketaren adierazpen analitikoa, efluentearen emariari eta konposizioari dagokionez (hiruhilekoan egindako efluenteen kontrol-analisi guztiak barne egongo dira).

– Urtero: tratamendu-sistemaren ustiapeneko gorabeheren eta isurketaren hobekuntzan lortutako emaitzen adierazpena.

Lehenengo urtean «hozte-purgatzeen» fluxuen analisietan eskuratutako emaitzen arabera erabakiko da bigarren urtetik aurrera fluxu horien analisi-kontrola sei hileko maiztasunera murriztea edo ez.

c) Isurketak baimenean jarritako baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da B.2.3 atalean agertzen diren parametro guztien ezarritako mugak betetzen baditu.

d) Titularrak urtero aurkeztu beharko du lehen aipatutako maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuaren Hirugarren Xedapen Gehigarriak barne hartutako substantzia arriskutsuak dituzten isurketak daudela aitortzen duen agiria. Adierazpen horretan produkzio-prozesuan manipulatu diren substantzia guztiak adierazi behar dira, nahiz eta isurketan ez detektatu.

e) Nahitaezkoa da ur tratatua modu jarraikian neurtzeko pH neurgailu bat eta isuritako uren emari-neurgailu bat izatea, neurketaren tokiko adierazlea, beharrezko bi puntutan alarmak eta datu historikoak gordetzeko eta kudeatzeko sistema informatizatua dutenak. Horiek Administrazioaren esku egon beharko dute gainera. Baimendutako isurketa-puntuetan izan beharko dira, garbiak diren euri-uren isurketa-puntuetan salbu.

C.3.– Jardueraren adierazleak.

Sustatzaileak jardueraren gaineko ondorengo parametro adierazleen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko.

Adierazlea	Unitatea
Elektrizitatearen kontsumoa	kWh/lan egindako orduak
Lehengaien kontsumoa	Kontsumoa/t produzitutako hodiak
Sareko uraren kontsumoa	m^3/lan egindako orduak
Bildutako uraren kontsumoa	m^3/lan egindako orduak
Prozesuko fokuak	m^3/funtzionamendu orduak
Hondakin geldoak	Sortutako hondakina/t produzitutako hodiak
Hiriko hondakinekin bateratu daitezkeen hondakinak	Kg/langileak × lan egindako orduak
Hondakin arriskutsuak	Sortutako hondakina/t produzitutako hodiak
Ur sanitarioaren isurketa	m^3/langileak × lan egindako orduak
Industria-uraren isurketa	m^3/lan egindako orduak
Zarata	dB/lan egindako orduak
Gasolio-kontsumoa	m^3/lan egindako orduak
Lurzoru kutsatuak	m^2 erasandako lurzorua/guztizko m^2
Usainak, begi-inpaktua	Kexa kopurua/lan egindako orduak

C.4.– Zarataren kontrola.

Jarduera garatzen den lursaileko kanpoko baldintza akustikoak hiru urtean behin kontrolatuko dira, batez ere zarata etxe barruetara sartzeko arriskurik handiena dagoen aldeetan. Kontroleko lehen urtean izandako emaitzen arabera erabakiko da aurrerantzean neurketak urtero egin ala ez.

Sustatzaileak neurketen proposamen zehatz bat landu beharko du eta neurketa-metodo zehatzak adierazi bertan. Proposamen hori Ebazpen honetako C.6 atalean aipatzen den Ingurumena Zaintzeko Programako testu bateginarekin batera aurkeztuko da.

C.5.– Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisi eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira. Bidalketa urtero egingo da eta ingurumena zaintzeko programako emaitzekin batera, txosten bat aurkeztuko da. Txosten horretan adieraziko dira neurri babesle eta zuzentzaileen funtzionamendua, baita prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko sistemak ere. Emaitzen analisia ere adieraziko da, eta bereziki aipatuko dira aldi horretan gertatu diren gorabehera garrantzitsuenak, horien ustezko arrazoiak eta konponbideak, eta baita laginketen xehetasunak ere, aurretik zehaztu ez baldin badira.

Gainera, isurketaren uraren kalitatearen kontrolari buruzko emaitzak hiru hilero bidali beharko dira Ingurumen Sailburuordetzara.

C.6.– Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina.

Sustatzaileak Ingurumena Zaintzeko Programaren agiri bategina landu beharko du, aurkeztu dituen agirietan eta Ebazpen honetan proposatutako betekizunak bilduz. Programa horrek hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak edo analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko guneen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Era berean, ingurumena zaintzeko programak jardueraren adierazleak zehaztu eta adierazle horiek aztertzeko sistematika barruan izan beharko du, horien arabera enpresan bertan ingurumen-hobekuntza ziurtatzearren ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatu ahal izateko (ingurumen-adierazleak).

D) Ezohiko egoeretan kutsadurari aurrea hartzeko neurriak eta jardunerako baldintzak.

D.1.– Instalazioa gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, botako diren kutsagarriak eta sortuko diren hondakinen balioespena egin beharko du enpresak, eta dagokionean, horiek kudeatzeko eta tratatzeko proposamena ere.

D.2.– Jarduera uztea.

Jarduera lege hauen aplikazio-esparrukoa da: lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legea (27.22 epigrafea «Altzairuzko hodien fabrikazioa»), eta kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide zein estandarrak ezartzen dituen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua. Hori dela-eta, Condesa Fabril, S.A. enpresak hasiera eman beharko dio lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako prozedurari, gehienez ere bi hilabeteko epean, jarduera behin betiko uzten duenetik kontatzen hasita, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak 17.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

D.3.– Ezohiko jardunean aplikatzeko neurriak eta jarduketak.

D.1 atalean jasotzen den proposamenean ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo isurketak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei eta segurtasun-neurriei dagokienez. Ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztea), biltegiratzeko neurri bereziak (gai arriskutsuak), egon daitezkeen ihesak antzemateko neurriak edo gainbetetzerako alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitzeko beharra, maiztasuna, garbiketa mota), eta lurzoruaren gaineko isuriak biltzeko sistemak.

b) Lehen aipatutako prebentziozko mantentze-lanetarako eskuliburuan atmosferaren kutsadura saihesteko eta zuzentzeko sistemak egoera onean daudela bermatzeko neurriak sartuko dira (arazketa, minimizazioa, eta abar). Era berean, ikuskaritza eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskaritzak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

c) Era berean, ustiapenari buruzko eskuliburu bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

d) Besteak beste, pinturak, disolbatzailea, taladrina eta olioak maneiatzeak lurzorua eta ura kutsa dezake. Beraz, isuriak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen azalera guztiak iragazgaiztuko dira.

e) Prozesurako behar diren produktuak, lehengaiak eta erregaiak ingurunean ez sakabanatzeko moduan biltegiratuko dira.

f) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, egiaztatu egin beharko da biltegiratzeko instalazio horiek bete egiten dituztela produktu kimikoak biltegiratzeari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

g) Larrialdi-egoeretan berehala eta eraginkortasunez jarduteko behar beste material eduki behar da: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen isuriei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, hesiak eta kaltetutako ingurunea isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

h) Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da kubetak husteko eragiketak kontrolatzeko protokolo edo agiri bidezko prozedura; eraginkortasunean eragin dezaketen produktuen isuriak ez dira tratamenduko instalaziora eramango.

i) Hidrokarburoen bereizgailuak aldizka zaindu beharko dira eta aldizkako zaintza eta garbiketa egin beharko dira, hondakinak metatzea saihestuz. Horretarako, noizean behin dekantagailuetan eta bereizgailuetan metatutako flotagarriak eta lohiak (lohiak, olioak eta koipeak) kendu egingo dira. Hondakin horiek baimendutako kudeatzaile bati bidali behar zaizkio, isurketaren kalitatea arriskuan jar dezaketen mailak pilatzea saihestu ahal izateko.

j) Biltegien edo putzuen hondoetan pilatutako solidoak ez dira ibai-ibilgura hustuko aldizka garbitzerakoan; behar bezala kudeatuko dira edo baimendutako zabortegira eramango dira.

k) Arazketa-prozesuan pilatutako hondakin solidoak eta lohiak aldizka atera egingo dira instalazioa behar bezala ibil dadin. Behar izanez gero, gordailu iragazgaitzetan eta hondoan hustubiderik ez dutenetan gordeko dira.

l) Inoiz ez dira pilatuko euri-uren jariatzearen ondorioz ibilgu publikoa kutsatzeko arriskua egon daitekeen guneetan.

m) Instalazioek lohiak tratatzeko sistema izanez gero, xukatutako ura arazketa-instalazioaren sarrerara birzirkulatuko da bertan tratatu dadin.

n) Hobi septikoaren sistema modu egokian garbitu eta mantenduko da errendimendu ona ziurtatzeko. Aldizka enpresa espezializatu batek erretiratuko ditu pilatutako solido eta lohiak, eta iragazki biologikoaren ohantzea garbituko du, eta garbiketan arrastatutako solidoak ibilgura hustea saihestuko da.

o) Urtean behin instalazio horien garbiketaren eta mantentze-lanen fakturaren kopia bat bidaliko da.

p) Larrialdi-egoeretan babes zibileko legeriari helduko zaio, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

q) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta ustekabeko isuriak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak abian izateko.

Estazioan erroilu erako edo gai pikortatuzko, edo antzeko berariazko gai xurgatzailea egongo da, ustekabeko jario edo ihesetan berehala aplikatu ahal izateko.

Araztegia ustiatzeko enpresa espezializatu batek egindako protokolo edo eskuliburu bat izango da nahitaez, eta ekipo elektromekaniko, zunda, mintz, dosifikatu eta kontrolatzeko tresna eta abarren azterketa eta mantentze-lanak finkatuko dira bertan.

r) Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ezohiko gertaeraren baten aurrean (besteak beste, isurtzeko muga-balioak gainditzea eta ustekabeko isuri bat gertatzea), sustatzaileak berehala gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari.

s) Gertakari edo arazo larriren bat edo ustekabeko isuriren bat egonez gero, SOS Deiak, Udala eta Ebroko Ur Konfederazioari jakinarazi beharko zaie berehala. Ondoren, eta gehienez ere 48 orduko epean, ezbeharrari buruzko txosten xehatua bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara. Txosten horretan, gutxienez, honako datu hauek agertuko dira:

– Gertakari mota.
– Gertakaria non, zergatik eta zein ordutan gertatu den.
– Iraupena.
– Ustekabeko isuria izanez gero, emaria eta isuritako gaiak.
– Mailak gainditu badira, isurtzeei buruzko datuak.
– Eragindako kalteen balioespena.
– Hartutako neurri zuzentzaileak.
– Berriro gerta ez dadin aurreikusitako neurriak.

– Prebentziozko neurriak eraginkortasunez aplikatzeko ezarritako epeak.

t) Instalazioek suteen aurkako babesari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu egin beharko da. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak. Hori egin ezean, egindako eskaeraren kopia aurkeztu beharko da eskumena duen erakundearen aurrean.

E) Baldin eta arautegi berria indarrean sartzeak edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hala egitera bagaramatza, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldarazi ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan. Era berean, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa jardueraren sustatzaileak hala eskatuta, edo ofizioz, aldaraz daitezke, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

F) Urtean behin Condesa Fabril, S.A. enpresak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dizkio atmosferara botatako kutsagarriei, uretara egindako isurketei eta sortu dituen hondakinei buruzko datuak, E-PRTR-Euskadi botatako eta eskualdatutako kutsagarrien Europako Inbentarioa landu eta eguneratzeko E-E-PRTR Araudiko eta ingurumeneko baimen bateratuetako isurketen gaineko informazioa ematea arautzen duenari apirilaren 20ko 508/2007 Errege Dekretuari jarraituz.

Informazio hori ekitaldi horren hurrengo martxoaren 31 baino lehen bidali beharko da eta Ingurumenari Buruzko Adierazpenaren (IA) bidez gauzatuko da. Informazio-trukaketa horren funtsa Ingurumenari buruzko Adierazpenari (IA) dagozkion ingurumeneko datu teknikoak eta prozedurakoak sartzean datza, IKS-eeM Sistemako erakundeentzako bertsioaren bidez (www.eper-euskadi.net web orrian eskuragarri): Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumen-informazioa Kudeatzeko Sistema. Datu horiek guztiek Ingurumenean Eragina duten Jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroa osatuko dute, Europako Ingurumen Agentziaren Erregistrora (Europako E-PRTR Erregistroa) egiten diren informazio-bidalketen oinarri dena. Era berean, Ebazpen honetan aurreikusitako gainerako informazio-trukaketak ahal bada aipatutako Ingurumenari buruzko Adierazpenaren bidez egingo dira.

Informazio hori agerikoa izango da, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin bat etorriz. Lege horren bidez informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE Zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, uneoro bermatu beharko da datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

G) 2007ko apirilaren 21eko 509/2007 Errege Dekretuaren 4. artikuluko 3. atalari jarraituz, lehendik dauden instalazioen titularrek agintaritzari jakinarazi beharko diote instalazio horietan erabiltzen eta ekoizten diren substantziek, 1907/2006 EE Erregelamenduan erregistratu eta ebaluatzeko aurreikusitako prozesuan identifikatu direnak, giza osasunerako eta ingurumenerako izan dezaketen arriskua.

H) Ingurumeneko baimen bateratu honen eraginpeko instalazioan egindako aldaketek bat etorri beharko dute kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko 2002ko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak 10.3 artikuluan ezarritako komunikazio-erregimenarekin. Hori horrela, ingurumeneko beste baimen bateratu bat beharko da aldaketak funtsezkoak direnean.

Hirugarrena.– Ebazpen hau eraginkorra izan dadin, aurretik Ingurumen Sailburuordetzari agiri bidez egiaztatu beharko zaio Ebazpen honetako bigarren ataleko honako puntu hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla: B.3.1.f) eta B.3.2.d) (Hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen onarpen-agiriak); B.3.1.o) eta B.3.2.f) (Hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen erregistro-eredua); B.3.2.a) (Desugertze-opila hondakinaren karakterizazioa); B.4 (Lurzoruaren kalitatearen babesari buruzko baldintzak); C.2.e) (pH neurgailua eta emari-neurgailua ezartzea); C.4 (Zarataren kontrolari buruzko proposamena); C.6 (Ingurumena Zaintzeko Programaren agiri bategina); D.1 (Isurtze eta hondakinen balioespena mantentze-lanetan); D.3.a) (Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua); D.3.f) (Produktu kimikoen biltegiratzeen egiaztagiriak); D.3.g) (Larrialdietarako materialen zerrenda); D.3.h) (Kubetak husteko maniobraren protokoloa); D.3.t) (Suteen aurkako babesari buruzko egiaztagiriak).

Halaber, baimen hau indarrean jarri aurretik, ingurumen organo honi atxikitako zerbitzu teknikoen ikuskaritza-bisitan egiaztatu beharko da instalazioak aurkeztutako proiektuaren arabera eta Ebazpen honetan ezarritakoarekin bat etorrita eraiki eta hornitu direla. Horretarako, aipatutako ikuskaritza-bisitaren aurretik, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu beharko du baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duen agiria, teknikari aditu batek eginda.

Goiko baldintza horiek guztiak betetzeko 6 hilabeteko epea ezarri da, ingurumeneko baimen bateratua eraginkorra dela adierazteko Ingurumen Sailburuordetzak emandako ebazpen hau jakinarazten den biharamunetik kontatzen hasita.

Adierazitako baldintzak betetzen direla ziurtatzean, ebazpena emango da eta, horren bitartez, ingurumeneko baimen bateratua eraginkortzat aitortuko da.

Laugarrena.– Ingurumeneko baimen bateratu hau 8 urteko epean egongo da indarrean, aurreko atalean ezarritakoaren arabera ondorioak dauzkan egunetik kontatzen hasita. Epe hori igarota, baimena berritu egin beharko da eta, hala badagokio, jarraian datozen aldietarako eguneratu.

Ingurumeneko baimen bateratua amaitu baino hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskaera egin beharko du, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 25. artikuluan xedatutakoa betez.

Bosgarrena.– Edozein modutan ere, ingurumeneko baimen bateratua ofizioz aldatu ahal izango da uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 26. artikuluan ezarritako kasuak aintzat hartuta.

Ingurumeneko baimen bateratu honetan jasotako ibilgurako isurketen baldintzei dagokienez, Jabari Publikoko Urguneen Erregelamenduaren 261. artikuluan eta ondorengoetan ezarritakoak, eta baldintza horiek hainbat aldiz ez betetzea berrikusi, bertan behera utzi eta indargabetzeko kausa izango dira.

Seigarrena.– Condesa Fabril, S.A. enpresak Ebazpen honen xede den altzairuzko piezak fabrikatzearen inguruan titulartasun-aldaketarik eginez gero, aldaketa hori Ingurumen Sailburuordetzan jakinarazi beharko du, hark onar dezan.

Zazpigarrena.– Baimen honek balioa galduko du honako hauek gertatzen direnean:

– Epearen barruan ez egiaztatzea ebazpen honetako hirugarren atalean ingurumeneko baimen bateratuak ondorioak izan ditzan ezarritako baldintzak betetzen direla, interesdunak behar bezala justifikatuz epea luzatzeko eskatzen ez badu.

– Condesa Fabril, S.A. enpresaren nortasun juridikoa bukatzea, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan.

– Baimena indarrean jartzen dela adierazten duen ebazpenean xedatutakoak.

Zortzigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Condesa Fabril, S.A. enpresari, Legutioko Udalari, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei eta gainerako interesdunei.

Bederatzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hamargarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluarekin eta ondorengoekin bat etorriz (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori).

Vitoria-Gasteiz, 2009ko uztailaren 17a.

Ingurumeneko sailburuordea,
NIEVES TERÁN VERGARA.